# IZARO ONLINE ETA ZUZENEAN, BIHAR, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO TEILATUTIK

## DONOSTIA KULTURAK DK ETXEAN EKIMENAREN AMAIERA ETA KULTUR ARLOKO KONFINAMENDU-ARINTZEA OSPATUKO DITU

**OHARRA:**
- Gogoan izan kontzertu hau online soilik ikusteko egin dugula.
- Ez dago bertatik bertara ikusteko aukerarik, kokapenak berak eragotzi egiten du inguruko balkoietatik harago ikustea.
- Aukeratutako ordua 19: 00etatik 19: 30era bitartekoa da, kaleetan jende gutxien ibiltzen den ordua baita.

Datorren igandean, maiatzak 10, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako konfinamenduari amaiera emango zaio eta pixkanaka-pixkanaka kaleetara eramango gaituen deseskalatzea hasiko da. Horregatik, amaitutzat ematen dugu Donostia Kulturak **DK Etxean** programa eskaini duen etapa. Programak ohiko online zerbitzu eta edukiak gainditu ditu, herritarrei bertako artistei propio eskatutako eduki kulturalak eskaintzeko.

Hemendik aurrera, Donostia Kulturak online edukiak eskaintzen jarraituko du. Lan-ildo hori dagoeneko *in crescendo* zegoen Erakundearen estrategian, baina, zalantzarik gabe, bizkortu eta indartu egingo da, bizi ditugun baldintzak direla-eta. Horregatik, **Donostia Kultura ON!** lan-ildoa sortu dugu (edukiak ez dira nahitaez etxetik kontsumituko, edozein gailu finko nahiz mugikorretik baizik). Donostia Kultura On! ekinbideak DK Etxean programaren ondorio gisa sortuko dugun ekoizpen digital guztia hartuko du, baita, etorkizun hurbilean, itzuli nahi dugun offline programazioari lotutakoa ere.

Etapa batetik bestera igarotzea markatzeko, Donostia Kulturak emanaldi oso berezia eskainiko du bihar, **maiatzak 8**, Antzokia Etxean programa digitalaren baitan. 18:30era aurreratu den NODEren lanaren ostean, **Izarok kontzertua eskainiko du Victoria Eugenia Antzokiaren teilatutik; 19:00etan**, hain zuzen. Kantari mallabiarrak hirukote formatuan (**Izaro Andres**, ahotsa eta gitarra; **Iker Lauroba**, ahotsa eta gitarra; **Garazi Esnaola**, teklatuak) eskainiko duen zuzenekoa Donostia Kulturaren Youtube kanalean soilik ikusi ahal izango da (https://youtu.be/or8V_kimoCE); izan ere, kaletik ezin izango da ikusi. Erakundearen sare sozialetatik eta donostiakultura.eus webgunetik sartu ahal izango da bertara.

*Tiempo ausente* bere single estreinatu berriarekin (https://www.youtube.com/watch?v=GuU220wqD5M) hasiko du sinbolismoz beteriko ordu erdiko emanaldia; bizi dugun ziurgabetasun-aro honetan inspiratuta, konfinamenduan sortu duen lanarekin. Kanta hori zuzenekoaren gozamenerako deia da, hurbiltasunerakoa, azken single horrexetako hitzek jasotzen duten moduan: "Arima musukatu nahi dizuet antzokietan. Txiste txar pare bat inprobisatu. Urduri jarri, nire gaitz guztiak eman. Eta maitasuna, zentzutasuna eta bakea goian behean jaso".

Emanaldiak **Antzokia Etxean** egitarauak aste hauetan bertako artista eta sortzaileei emandako babesa azpimarratu nahi du eta esanahi berezia izango du **Donostiako espazio eszeniko nagusia den Victoria Eugenia Antzokitik zuzenean** emitituko baita.

Kontzertuaren bideo editatua igandean, maiatzak 10, 12:00etatik aurrera ikusi ahal izango da, Donostia Kulturaren Youtube kanal berean.

Azken txanpan diren DK Etxean eta Antzokia Etxean programen amaiera bikain honekin, Donostia Kulturatik eta Victoria Eugenia Antzokitik gonbita egin nahi diegu hiritarrei zuzeneko kulturara, itzultzeko irrikaz dauden –zalantzarik ez dugu– zuzeneko ikuskizunetara, pixkanaka hurbil daitezen.

**Grafikoentzako oharra:**

Segurtasun arrazoiak direla-eta, ezin izango da antzokiko teilatura igo. Gertuko teilatu batetik lan egiteko aukera izango da, ordea. Interesa dutenek 18:30ean egon beharko dute antzokiaren artistentzako sarreran (Okendo kaleko izkina), osasun-distantzia gordeta. Idatzi musika_komunikazioa@donostia.eus postara edo 943 481184 telefonora deitu aldez aurretik, mesedez.

# IZARO ONLINE Y EN DIRECTO, MAÑANA, DESDE LA AZOTEA DEL TEATRO VICTORIA EUGENIA

## DONOSTIA KULTURA CELEBRA EL FINAL DE DK ETXEAN Y LA PRÓXIMA DESESCALADA CULTURAL

**NOTA:**
-Recordamos que este concierto ha sido concebido para ser vivido online exclusivamente
-No se contempla posibilidad presencial y, de hecho, la propia localización impide su visibilidad, más allá de los balcones cercanos.
-La hora elegida es la franja de 19:00 a 19:30 por ser la de menor afluencia de gente en las calles.

Este próximo domingo, 10 de mayo, se pone fin al confinamiento provocado por la crisis sanitaria del COVID-19 y se inicia la desescalada paulatina que volverá a llevarnos a las calles. Por ello damos por finalizada la etapa actual en la que Donostia Kultura ha ofrecido su programa **DK Etxean**. El programa ha trascendido los habituales servicios y contenidos online para ofrecer a la ciudadanía contenidos culturales encargados ex profeso a artistas locales.

A partir de aquí, Donostia Kultura seguirá ofreciendo contenidos online. Esta es una línea de trabajo que ya iba *in crescendo* en la estrategia de la Entidad pero que, indudablemente, se acelerará y potenciará por las circunstancias que estamos viviendo. Por ello hemos creado la línea de trabajo **Donostia Kultura ON!** (con contenidos que ya no serán necesariamente consumidos desde casa –etxean– sino desde cualquiera de los dispositivos fijos y móviles). Donostia Kultura ON! acogerá toda la producción

digital que crearemos tanto como secuela de DK Etxean como, en un futuro muy próximo, vinculada a la programación offline a la que tanto estamos deseando volver.

Para marcar el paso de una etapa a otra, Donostia Kultura ofrecerá mañana **viernes, 8 de mayo**, una actuación muy especial dentro de su parrilla digital, en el programa Antzokia Etxean. A las **19:00** horas (tras la actuación de NODE prevista en este espacio que ha sido adelantada a las 18:30) **Izaro dará un concierto desde el tejado del Teatro Victoria Eugenia**. En formato trío (**Izaro Andres**, voz y guitarra; **Iker Lauroba**, voz y guitarra; **Garazi Esnaola**, teclados), el recital en directo –que no será visible desde la calle– se emitirá desde el canal de Youtube de Donostia Kultura (https://youtu.be/or8V_kimoCE), al que se podrá acceder desde donostiakultura.eus y las redes sociales de la Entidad.

Con una duración de media hora, *Tiempo ausente*, su recién estrenado single (https://www.youtube.com/watch?v=GuU220wqD5M), servirá de arranque para una actuación llena de simbolismo: un trabajo creado durante el confinamiento e inspirado por esta etapa de incertidumbres en la que vivimos. Y, a la vez, una llamada a la vuelta del disfrute del directo, a la cercanía, como recoge la letra de este último single: “Quiero besaros las almas en los teatros. Improvisar un par de chistes malos. Ponerme nerviosa, daros todos mis males. Y recibir amor, cordura y paz a mares".

La actuación viene a subrayar el papel que **Antzokia Etxean** ha cumplido estas semanas de apoyo a las/los artistas y creadores/as locales, con un significado especial al ser emitido **en directo desde el Teatro Victoria Eugenia, principal espacio escénico de Donostia / San Sebastián**.

El video del concierto podrá, además, disfrutarse ya editado a partir de las 12:00 horas del domingo 10 de mayo, también por el canal de Youtube de Donostia Kultura.

Un broche de oro para la recta final de DK Etxean y Antzokia Etxean, y **una invitación de Donostia Kultura y del Teatro Victoria Eugenia al acercamiento progresivo de la ciudadanía a la cultura en directo, a los espectáculos en vivo**, a los que –no nos cabe duda– está deseando volver.

**Aviso para gráficos:**
Por razones de seguridad, no es posible acceder a la azotea del teatro pero se dispondrá de un espacio privado en un tejado cercano. Las/os interesados deberán estar a las 18:30 en la entrada de artistas del teatro (esquina calle Okendo) guardando la distancia sanitaria (Avisar previamente al correo musika_komunikazioa@donostia.eus o al teléfono 943 481184).

**KOMUNIKAZIOA** COMUNICACIÓN
Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
**T.** (0034) 943 481 151 **E.** kultura_komunikazioa@donostia.eus
**www.donostiakultura.eus**